

Zein bidetatik jarraitzen dugu Jesusen atzetik?

(Garizuma aldirako ospakizuna)

SARRERA

Bihotz-berritzearen esperientzian oinarritutako ospakizuna, Garizuma aldian familiekin egiteko¹. Tentazioen kontaktaren bitartez, bizitzan zein bidetatik goazen ikusiko dugu eta baita zein bidetatik jarraitzen dugun Jesusen atzetik.

GARAPENA

Atarikoak:

- Lehenengo unerako, leku zabala behar dugu, partaideak alde batera eta bestera ibil daitezzen estropezu egin gabe. Leku berean egin daitezke hasierako une hau eta ondoren datorrena; bestela, bi leku izango ditugu eta hasierako jardueraren ostean, taldea lekualdatu egingo da.
- Zapiak, taldekideen erdiari begiak estaltzeko.
- Moztutako geziak, idazteko eta marrazteko modukoak.
- Muralak egiteko paper handia, bidea marraztuta duela.

Harreraren ostean, denbora hartuko dugu ospakizuna egiteko giro egokia sortzeko eta parte hartzera bultzatzeko.

Honako dinamika hau proposatuko diegu partaideei: Bikoteka jar daitezela (familiak berekoak ez badira, hobeto) eta bikotekide batek begiak estali ditzala eta besteak ez eta elkarrengandik aldentu daitezela. Begiak estali gabe dituenak bere ahotsaz gidatuko du begiak estalita dituen berarenganaino irits dadin. Bikotekideak elkartzeaz batera, paperak aldatuko dituzte eta ariketa bera egin, baina ibilbidez aldatuz. Azkenean dinamika komentatu labur-labur:

- Nola sentitu gara?
- Zer da errazagoa: gidatzea ala gidatzen uztea?
- Bizitzan, onartzen dugu inoren gidaritzarik?

Ondoren, dinamika leku batean egin bada eta ospakizunaren gainerako zatiak beste batean egingo badira, lekuz aldatuko dugu. Dena leku berean egingo bada, ospakizunerako egokitutako lekura joango gara.

Ospakizunaren gidaritzaz arduratzen denak zera galdetuko du:

¹ Honako gidoi hau ez da sakramentu-ospakizunerako, baina ezinbesteko baldintzak betez gero, txerta daiteke Adiskidetzaren sakramentua.

Ba al dakizue zein alditan gauden? Garizuma aldia deitzen zaio. Badaki inork zer adierazten duen 'Garizuma' hitzak? Berrogei egun. Berrogei egun guztiz garrantzitsuak dira Jesusen adiskideontzat, jai nagusirako, hau da, Pazkorako prestatzen garelako. Garizuma aldian, Jesusengan jartzen dugu beren-beregi arreta, zer egiten duen, nola bizi den ikusi eta gero eta antz gehiago izateko Berarekin. Eta, badakizue zer dela-eta Garizuma aldia 40 eguneko den? Jesusek 40 egun eman zituelako basamortuan. Denboraldi horretan, hainbat gauza gertatu zitzaion. Hona hemen behin gertatutakoa.

Une honetan, helduak eta txikiak banandu.

Helduekin: Tentazioen testua hots egingo dugu

Jesus Espiritu Santuaz betea itzuli zen Jordanetik. Espirituak eramanda, basamortuan barrena ibili zen berrogei egunez, deabruak tentatzen zuela. Egun haietan ez zuen ezer jan, eta azkenean gosetu egin zen. Deabruak esan zion, orduan:

-Jainkoaren Semea zarenez, agindu harri honi ogi bihurtzeko.
Jesusek erantzun zion:
-Liburu Santuan idatzita dago: "Gizakia ez da ogiz bakarrik bizi".
Ondoren, deabruak, leku garai batera eramanda, munduko erreinu guztiak erakutsi zizkion une batean eta esan zion:
-Hara, neureak ditut erreinu ahaltsu eta aberats guztiok eta nahi dudanari eman diezazkioket. Beraz, adoratzen banauzu, zeuretzat izango dituzu.
Jesusek erantzun zion:
-Idatzita dago: "Adoratu Jauna, zeure Jainkoa, eta bera bakarrik gurtu".
Orduan, Jerusalemera eraman zuen deabruak eta, tenpluaren goreneko ertzera jatorik, esan zion:
-Jainkoaren Semea zarenez, bota zeure burua hemendik behera, idatzita baitago: "Bere aingeruei aginduko die zu zaintzeko. Besoetan eroango zaituzte, harriekin estropezu egin ez dezazun".
Baina Jesusek erantzun:
-Aginduta dago: "Ez tentatu Jauna, zeure Jainkoa".
Orduan, bere tentazio guztiak agorturik, deabruak alde egin zuen Jesusengandik, hurrengo egokiera arte. (Lukas 4,1-13)

Ospakizuna gidatzen ari denak testuaren inguruko azalpenak emango ditu, mezua ulertzen eta barneratzen lagunduz. Baliagarri izan daitezke honako ideia hauek:

- Ebanjelioan, basamortuan kokatzen den eta 40 eguneko iraupena duen pasarte honetan, Jesusen bizitzaren ingurukoak azaltzen dira. Berak, geuri gertatzen zaigunez, erabakiak hartu behar izan zituen, bere bizitzaren norabidea aukeratu egin behar izan zuen.
- Jesus, Mesias izateko beste era bat aukeratzeko moduan izan zen, hau da, boterea, nagusitasuna, ospea, axolagabekeria, jabetzak metatzea,

berekoikeria... aukeratzeko moduan izan zen. Baina, hala ere, pasarte honetan ikus daitekeenez, bestelako bidea aukeratu zuen: zerbitzua, apaltasuna, maitasuna, elkartasuna, Jainkoarenganako konfiantza, leialtasuna, ematea, konpromisoa...

- Are gehiago, bide hori Beretzat aukeratzeaz gainera, bere jarraitzaileei proposatu zien, zorionez eta osotasunez beteriko bizimodua lortzeko bide bezala.
- Eta guk, zein bide aukeratu dihardugu? Nora garamatzate? Garizuma aldia bihotz-berritzeko aldia da, geldialdia egin eta non gauden ikusteko eta, Ebanjelioaren argitan, gure bizitza Jesusenaren antzeko egiteko zein aldaketa egin behar dugun pentsatzeko aldia.

Tarte bat utziko dugu bakarka hausnartzeko (edo bikoteka, egokitzen joz gero). Horretarako, azkenean agertzen den orrialdea –labirintoaren irudia eta hausnarketarako galderak- banatuko diegu. Isilunea utziko da, musika jarrita dagoela. Hausnarketaren amaieran, lagun bakoitzak idatz dezala emango zaizkien gezieta batean zein jarrera zaindu behar duen bereziki Jesusen atzetik jarraitzeko bidean aurrera egiteko.

Haurrekin: Tentazioen kontaktaren moldaketa irakurriko dugu:

Jesus, Espiritu Santuaz bete, basamortura joan zen. Berrogei egunegon zen han. Ez zuen ezer jan egun haietan eta, azkenean, gose zen. Orduan, ahots bat entzun zuen esanez: "Jainkoaren Semea zarela egia bada, agindu harri honi ogi bihurtzeko". Jesusek erantzun zion: "Zorioneko izateko, ez da ogia bakarrik behar". Ondoren, Jesus leku garai batera igo zen eta handik munduko herrialde guztiak ikusten zituen. Ahots batek esan zion: "Aita Jainkoak esaten dizuna ahaztu eta jaramon egiten badidazu, herrialde guztien errege izango zara". Baina Jesusek erantzun zion: "Zorioneko izateko garrantzitsuenak, Aita Jainkoa maitatzea eta Bere borondatea betetzea da".

Ospakizuna gidatzen ari denak, azalpenak emango ditu Jesusentzat benetan garrantzitsua dena nabarmenduz: Aita Jainkoa eta besteak maitatu. Horrela denok izango gara zorioneko. Horregatik, benetan, zer ote du gogoko Jesusek?

- Litxarrerria eta jostailuak banatu eta konpartitu ditzagula ala geuk bakarrik jan eta jolas dezagula?
- Anai-arrebeekin beti eztabaidan jardun dezagula ala ondo konpon gaitzela?
- Eskolan norbait bazterrean utz dezagula ala denen adiskide izan gaitzela?
- Aita eta amak gauzak behin eta berriz esan diezazkigula ala esana egin eta jokaera zuzena izan dezagula?
- Triste egon gaitzela ala denak poz ditzagula?
- Izadia gaizki tratatu, gauzak bota ditzagula ala zain dezagula?

Ondoren, geziak banatuko dizkiegu haurrei eta hauek Jesusek gustuko duen zerbait (banatu, elkarrekin jolastu, lagundu, pozik egon...) marraztuko dute bertan. Horiexek dira gure seinaleak, bidean gidatuko gaituzten geziak.

Astirik izanez gero, labirintoak banatu, jolas erara zorioneko izateko bidea aurki dezaten.

Denok batera: Haur eta helduak batu eta elkarrekin amaituko dute ospakizuna. Haur nahiz nagusiek idatzi eta margotu dituzten geziekin murala osatuko dute. Aurretik paper batean bide bat marraztuta izango da eta hantxe ipiniko dituzte geziak beren idazki eta margoekin; gezi horiek erakutsiko digute Jesusen bidea zein den.


Elkarrekin egin duten muralaren inguruan ipiniko dira eta indarra eskatuko diote Jainkoari Jesusen bidetik aurrera egiteko *Gure Aita* esanez.

"*Jesus dago nire bihotzean*", kantatuko dugu, keinuz baliatuz.

(Hemen entzun dezakezu: <https://www.youtube.com/watch?v=-BaDub1loUs>)




JESUSEK PROPOSATZEN DIGUN BIZITZA OSORAKO, ZORIONERAKO IRISTEKO BIDEA AURKITZEKO GAUZA OTE ZARA?



BIZITZA OSOA
ZORIONTASUNA

Garizuma aldia bihotz-berritzeko aldia da, gure ibilia Ebanjeliorantz, bizitza osorantz bideratzeko aukera

- Zein gezik gidatzen du zure bidea?
- Benetan, zein geziri jaramon egiten diozu? Zein hartzen duzu kontuan erabakiak hartzeko, bizitzan orientatzeko? Ospea, boterea, nagusitzea, asko metatzea duzu helburu, bakarrik zeure buruarengan pentsatzen duzu, axolagabe jokatzeko? Ala besteen aldeko zerbitzua, apaltasuna, maitasuna, leialtasuna, elkartasuna, Jainkoarenganako konfiantza, banatzea, konpromisoa dira zure xede eta gidari?
- Jarraitzen dituzun geziek, hartzen dituzun erabakiek, nora zaramatzate: zoriontasunaren "helmugara" hurbildu egiten zaituzte ala bertatik urrundu?



- Alderdiren bati dagokionez ibilbidea "berriz kalkulatu" eta beste gezi batzuei jaramon egin behar diezula sentitzen duzu? Zein gezi kenduko zenuke eta zein jarri?

